

ARIKETAK

1 BI PUNTUAK

Gramatika atalean esana dugu dagoeneko: bi puntuak zerrendak egiteko izateaz gain, esaldia arintzeko ere balio dute. Adibide bat emango dizugu, eta ondoren saiatu zaitetz, bi puntuak erabilita, esaldiok beste era batera jartzen:

Eta txarrena da aisia liburu mota horien gabezia ez dela editorialen akatsa.
Eta txarrena: aisia liburu mota horien gabezia ez da editorialen akatsa.

1. Tomas Morok esan zigun naturarekin bat egitea dela bertutearen ezaugarri.
Tomas Morok esana da _____
2. Humanismora itzuli beharra daukagu, zeren enpresa edo administrazioen arrakastaren funtsa pertsonak dira.
Humanismora itzuli beharra daukagu _____
3. Normalean etxeko lanak egitera, ikasgaien bat lantzerako edo beste hizkuntzaren bat ikastera etortzen dira gure akademiara.
Normalean honetara _____
4. Lehendik ere bagenekien, eta Torrealdaik gogorarazi egin zigun. Izan ere, egia da kalea, kioskoa irabazteke dauzkala euskarak.
Lehendik ere bagenekien eta Torrealdaik gogorarazi egin zigun. Izan ere, _____
5. Kanadan frantsesa ikasteko ordaindu beharrean, ikastearren ordaintzen dizute.
Kanadan ez dago _____

2 HIZTEGI BATUA

1. a) **Bapatean**, Inkisizioko ofizialez bete zitzaigun etxea.
b) **Batpatean**, Inkisizioko ofizialez bete zitzaigun etxea.
c) **Bat-batean**, Inkisizioko ofizialez bete zitzaigun etxea.
2. a) **Agudo** ikusi zuten, langileen asmoak iristeko, bi alderdien indarrak elkarganatzea komeni zela.
b) **Aguro** ikusi zuten, langileen asmoak iristeko, bi alderdien indarrak elkarganatzea komeni zela.
3. a) **Hipokresia** hutsa da, eta, gainera, antzua.
b) **Hipokrisia** hutsa da, eta, gainera, antzua.
4. a) Emeki-emeki eta **harrabots** handirik gabe, etorri dira horiek gure ingurura.
b) Emeki-emeki eta **arrabots** handirik gabe, etorri dira horiek gure ingurura.
5. a) Urbinan, 1913an, **adineko** jendea euskaraz mintzatzen zen.
b) Urbinan, 1913an, **edadeko** jendea euskaraz mintzatzen zen.
6. a) Hori dela eta, nik **erreflexio** txiki bat egin nahi nuke.
b) Hori dela eta, nik **gogoeta** txiki bat egin nahi nuke.
7. a) Pausu bakoitza esaldi motz batean adierazi, puntu eta apartearen bidez bereizi eta **agintekera** erabili.
b) Pausu bakoitza esaldi motz batean adierazi, puntu eta apartearen bidez bereizi eta **agintera** erabili.
c) Pausu bakoitza esaldi motz batean adierazi, puntu eta apartearen bidez bereizi eta **inperatiboa** erabili.

A R I K E T A K

8. a) Angelu bat irakurtzerakoan 30 **grado**, 40 minutu eta 52 segundo esaten bada, honela idatziko da: 30° 40' 52".
b) Angelu bat irakurtzerakoan 30 **gradu**, 40 minutu eta 52 segundo esaten bada, honela idatziko da: 30° 40' 52".
9. a) Etxean bazuen atzeko aldean **eskalera** bat, bigarren etxebizitzarako.
b) Etxean bazuen atzeko aldean **eskailera** bat, bigarren etxebizitzarako.
10. a) Trukean ezingo dizuegu, agian, merezi duzuen **ainbat** eskaini.
b) Trukean ezingo dizuegu, agian, merezi duzuen **adinbat** eskaini.
c) Trukean ezingo dizuegu, agian, merezi duzuen **hainbat** eskaini.
11. a) Zerbitzu hau martxan jartzeko, **taxilari** taldeak herriko monumentuei eta interes-guneei buruzko kontuak ikasi behar izan ditu.
b) Zerbitzu hau martxan jartzeko, **taxista** taldeak herriko monumentuei eta interes-guneei buruzko kontuak ikasi behar izan ditu.
12. a) Arroza non egiten den eta langintza honek dituen **gorabeherak** zeintzuk diren jakiteko honako ariketa hau proposatzen dizugu.
b) Arroza non egiten den eta langintza honek dituen **gora-beherak** zeintzuk diren jakiteko honako ariketa hau proposatzen dizugu.
c) Arroza non egiten den eta langintza honek dituen **gora beherak** zeintzuk diren jakiteko honako ariketa hau proposatzen dizugu.
13. a) Lumo herri txikia izanik, igandero mezatarra joan ohi ziren eliztarrak zenbait **agure-atso** eta neska-mutiko batzuk besterik ez ziren.
b) Lumo herri txikia izanik, igandero mezatarra joan ohi ziren eliztarrak zenbait **atso-agure** eta neska-mutiko batzuk besterik ez ziren.
14. a) Afganistango erregimen talibana eraitsi du ia-ia **aireko indar** hutsa erabilita.
b) Afganistango erregimen talibana eraitsi du ia-ia **aire-indar** hutsa erabilita.
15. a) Ahal izanez gero, oraingo bide **bertsutik** ibiliko nintzatekeela iruditzen zait.
b) Ahal izanez gero, oraingo bide **beretsutik** ibiliko nintzatekeela iruditzen zait.
16. a) Eguzki-loreak eguzkia irudikatzen du eta haren **birtute** mitikoez horniturik dago.
b) Eguzki-loreak eguzkia irudikatzen du eta haren **bertute** mitikoez horniturik dago.
17. a) **Fasizismoa** gorantza zetorren urte hartan Europan. Gobernua zegoen Alemanian, Italian eta Portugalen, eta armen indarrez hartuko zuen handik gutxira gobernu Estatu espainiarrean.
b) **Faxismoa** gorantza zetorren urte hartan Europan. Gobernua zegoen Alemanian, Italian eta Portugalen, eta armen indarrez hartuko zuen handik gutxira gobernu Estatu espainiarrean.
18. a) Erabiltzaileak bere lana eta **jakite maila** autoebaluatzeko aukera du liburuan zehar.
b) Erabiltzaileak bere lana eta **ezagupen-maila** autoebaluatzeko aukera du liburuan zehar.
c) Erabiltzaileak bere lana eta **ezagupen maila** autoebaluatzeko aukera du liburuan zehar.
19. a) Erantzuna ematen edo erantzunarentzako datuak biltzen **entsegatu** zen Paul Lidsky.
b) Erantzuna ematen edo erantzunarentzako datuak biltzen **entseatu** zen Paul Lidsky.
c) Erantzuna ematen edo erantzunarentzako datuak biltzen **entseiatu** zen Paul Lidsky.
20. a) Ikusgarria da. **Untziola** edo Astilleroa lehen zegoen tokian, orain **kirol-untzien** portua dago, Astilleruko pasialekuaren hasieran.
b) Ikusgarria da. **Ontziola** edo Astilleroa lehen zegoen tokian, orain **kirol-ontzien** portua dago, Astilleruko pasialekuaren hasieran.



ZUZENA EDO EGOKIENA AUKERATU, EUSKALIZAINDIAK EMANDAKO ARAUAK KONTUAN HARTUTA:

1. a) Betidanik euskaraz ikasi duen batentzat gogorra izango da **bat-batean**, esaterako, fisika erdaraz ikasten hastea.
b) Betidanik euskaraz ikasi duen batentzat gogorra izango da **bapatean**, esaterako, fisika erdaraz ikasten hastea.
c) Betidanik euskaraz ikasi duen batentzat gogorra izango da **batbatean**, esaterako, fisika erdaraz ikasten hastea.
2. a) Alkate eta zinegotzien iritziz, gastu handiak ekarriko ditu erosketa honek, **batik bat**, era txarrean dagoelako eta, gainera, etxearen erdia delako.
b) Alkate eta zinegotzien iritziz, gastu handiak ekarriko ditu erosketa honek, **batipat**, era txarrean dagoelako eta, gainera, etxearen erdia delako.

A R I K E T A K

3. a) Hori dela eta, Ordezko Arauen berrazterketan dimentsio berria egokitu zaio zonalde honi: herriaren **atzekaldea** izan beharrean **aurrekalde** bihurturik.
b) Hori dela eta, Ordezko Arauen berrazterketan dimentsio berria egokitu zaio zonalde honi: herriaren **atzeko alde** izan beharrean **aurreko alde** bihurturik.
c) Hori dela eta, Ordezko Arauen berrazterketan dimentsio berria egokitu zaio zonalde honi: herriaren **atzealde** izan beharrean **aurrealde** bihurturik.
4. a) Ez nuke nik idazkaritzat aukeratuko, pentsatu nuen, agian sekula idazkaririk izan ez dudalako, baina ahaztu eta guzti egin zitzaidan **nirekin** zegoen koadrila.
b) Ez nuke nik idazkaritzat aukeratuko, pentsatu nuen, agian sekula idazkaririk izan ez dudalako, baina ahaztu eta guzti egin zitzaidan **nerekin** zegoen koadrila.
5. a) Gatazkak **non-nahi** sortzen dira, edozein gizartetan; eta gatazka horiek konpontzeko, ahaleginak egiten dira gizartean: ahalegin horiei buruzkoa da zuzenbidea.
b) Gatazkak **nonnahi** sortzen dira, edozein gizartetan; eta gatazka horiek konpontzeko, ahaleginak egiten dira gizartean: ahalegin horiei buruzkoa da zuzenbidea.
c) Gatazkak **nonahi** sortzen dira, edozein gizartetan; eta gatazka horiek konpontzeko, ahaleginak egiten dira gizartean: ahalegin horiei buruzkoa da zuzenbidea.
6. a) Giza zientziaren aurkikuntzei buruz *Engels*-ek esaten zuen bezala, Gizadiaren **benefako** historia oraindik ere hasi baino ez da egin.
b) Giza zientziaren aurkikuntzei buruz *Engels*-ek esaten zuen bezala, Gizadiaren **benefazko** historia oraindik ere hasi baino ez da egin.
7. a) Ikastaroaren hasieran partaide guztiek ariketa berberak egiten dituzte, **batzuetan** bakarka, besteetan talde osoan, eta beste **batzuetan** talde txikietan, unitate bakoitzaren hasieran adierazten den bezala.
b) Ikastaroaren hasieran partaide guztiek ariketa berberak egiten dituzte, **batzutan** bakarka, besteetan talde osoan, eta beste **batzutan** talde txikietan, unitate bakoitzaren hasieran adierazten den bezala.
8. a) Jakintsu **batzuek** erantzungo dute nola jokatu behar den Euskal Herrian, Akademiko nagusien baimenarekin.
b) Jakintsu **batzuk** erantzungo dute nola jokatu behar den Euskal Herrian, Akademiko nagusien baimenarekin.
9. a) Liburuak, egindakoa bildu **ez ezik**, bildutakoa erabiltzen du zenbait teoria berri osatzeko, hala nola, elebidunaren garapen soziopsikologikoaren ereduan.
b) Liburuak, egindakoa bildu **ezik**, bildutakoa erabiltzen du zenbait teoria berri osatzeko, hala nola, elebidunaren garapen soziopsikologikoaren ereduan.
10. a) Lasterka batean joan ginen, **argirik gabe**.
b) Lasterka batean joan ginen, **argi gabe**.
c) Lasterka batean joan ginen, **argirik gaberik**.
d) Lasterka batean joan ginen, **argi gaberik**.
11. a) Hamaika hizkuntza bizitu izan dira, eta iraun dute hitz egite hutsarekin, sekula idatziak izan ez direla; baina, hitz egiteari utzi **ezkero**, ez dago hizkuntzarik.
b) Hamaika hizkuntza bizitu izan dira, eta iraun dute hitz egite hutsarekin, sekula idatziak izan ez direla; baina, hitz egiteari utziz **gero**, ez dago hizkuntzarik.
12. a) Atzo **ezkero** jende asko etorri da auzora dendaz denda erosketak egitera.
b) Atzo **gero** jende asko etorri da auzora dendaz denda erosketak egitera.
c) Atzo **ezkero** jende asko etorri da auzora dendaz denda erosketak egitera.
13. a) Aurtengo Sanferminez **gero**, Iruñean, oso giro lasaian egon gara, abuztuan lasaitasun handiagoa dagoelako, uztailen baino.
b) Aurtengo Sanferminak **ezkero**, Iruñean, oso giro lasaian egon gara, abuztuan lasaitasun handiagoa dagoelako, uztailen baino.
c) Aurtengo Sanferminez **ezkero**, Iruñean, oso giro lasaian egon gara, abuztuan lasaitasun handiagoa dagoelako, uztailen baino.
14. a) Hau **dela-eta** ume bat hobeto legoke elkar maite duten sexu bereko bi lagunekin, etengabe gatazkan dauden edo umerik nahi ez duten senar-emazte batzuekin baino, edo, areago, administrazioaren egoitza batean baino.
b) Hau **dela-ta** ume bat hobeto legoke elkar maite duten sexu bereko bi lagunekin, etengabe gatazkan dauden edo umerik nahi ez duten senar-emazte batzuekin baino, edo, areago, administrazioaren egoitza batean baino.
15. a) Berehala, aurpegia **gorri gorri** jarri zen lehendabizi eta ondoren zurbiltasunik zurbilenera aldatu.
b) Berehala, aurpegia **gorri-gorri** jarri zen lehendabizi eta ondoren zurbiltasunik zurbilenera aldatu.

SOLUZIOAK

1 Bi puntuak

1. Tomas Morok esan zigun naturarekin bat egitea dela bertutearen ezaugarri.
Tomas Morok esana da: "Naturarekin bat egitea da bertutearen ezaugarri".
2. Humanismora itzuli beharra daukagu, zeren enpresa edo administrazioen arrakastaren funtsa pertsonak dira.
Humanismora itzuli beharra daukagu: pertsonak dira enpresa edota administrazioen arrakastaren funtsa.
3. Normalean etxeko lanak egitera, ikasgairen bat lantzerantz edota beste hizkuntzaren bat ikastera etortzen dira gure akademiara.
Normalean honetara etortzen dira gure akademiara: etxeko lanak egitera, ikasgairen bat lantzerantz edota beste hizkuntzaren bat ikastera.
4. Lehendik ere bagenekien, eta Torrealdaik gogorarazi egin zigun. Izan ere, egia da kalea, kioskoa irabazteke dauzkala euskarak.
Lehendik ere bagenekien eta Torrealdaik gogorarazi egin zigun. Izan ere, egia da: kalea, kioskoa irabazteke dauzka euskarak.
5. Kanadan frantsesa ikasteko ordaindu beharrean, ikastearren ordaintzen dizute.
Kanadan ez dago frantsesa ikasteko ordaindu beharrik: ikastearren ordaintzen dizute.

2 HIZTEGI BATUA

- | | |
|-----------|-------|
| 1. c | 11. a |
| 2. a | 12. a |
| 3. b | 13. b |
| 4. a | 14. a |
| 5. Hobe a | 15. a |
| 6. b | 16. b |
| 7. b | 17. b |
| 8. b | 18. a |
| 9. b | 19. b |
| 10. b, c | 20. b |

3 ZUZENA EDO EGOKIENA AUKERATU, EUSKALTZAINDIAK EMANDAKO ARAUAK KONTUAN HARTUTA:

- | | |
|------------|----------------|
| 1. a | 9. a |
| 2. a | 10. a, b eta d |
| 3. b eta c | 11. b |
| 4. a | 12. a eta b |
| 5. a eta c | 13. a eta b |
| 6. a | 14. a |
| 7. a | 15. b |
| 8. a | |